



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko uztailaren 1a

85. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egokitu dezan enplegurako eta funtzio publikoan sartzeko eskaintza publikoak arautzen dituen araudia, gordetze aldera erreserbako % 2ko kupora iristen diren genero-indarkeriaren biktimen nortasuna. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bete egin dezan mozio bat, zeinak premiatzen baitzuen Lizarran Familia Elkartzeko Gunea bat abian jartzera eta Iruñean Familia Elkartzeko Gunea indartu eta deszentralizatza, Elizondon egoitza bat ireki ahal izateko. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, eremu ahul gisa izendatutako eremuetan uraren kutsadurari aurrea hartzeko eta hura murrizteko 2018-2021 aldian jarduteko programari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, pandemiari aurre egiteko Sodenaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetariaren kopuruari eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopuruari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- Galdera, metabertosa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Avento enpresari Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeke enkargatu zaion azterlanari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze mailari eta planaren 2023ko ekintzetarako epeei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitzei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeko kalkuluaren zenbatespena enkargatu zaion enpresa espezializatuari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, ematen duten zerbitzuan ordutegi osoa ez duten liburutegi publikoen ordutegiak luzatzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean ordezkapenak betetzeko irizpideei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (12. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egokitu dezan enplegurako eta funtzio publikoan sartzeko eskaintza publikoak arautzen dituen araudia, gordetze aldera erreserbako % 2ko kupora iristen diren genero-indarkeriaren biktimen nortasuna.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egokitu dezan enplegurako eta funtzio publikoan sartzeko eskaintza publikoak arautzen dituen araudia, gordetze aldera erreserbako % 2ko kupora iristen diren genero-indarkeriaren biktimen nortasuna (10-22/MOC-00061).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (+) talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Pertsonen intimitaterako eskubidea, administrazio publikoek gardentasunaren arloan dituzten

betebeharrak eta herritarren informaziorako eskubidea inoiz elkarren aurka egon daitezke.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak 24. artikuluan, 7. puntuan, honako hau dio:

- Lan publikoaren eskaintzei genero-eraginaren txostena erantsiko zaie, eta lanpostuen % 2 gordeko dira indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat, betiere izaera hori frogatu eta hautapen prozesuak gainditzen badituzte.

Deialdi horien prozesuan zenbait une administrazio izaten dira, non erreserbako lanpostu horietara aurkezten edo iristen diren emakumeen nortasuna eta genero-indarkeriaren biktima izaera publiko egiten diren, bereziki zaugarriak diren emakume horiek berriro biktimizatzea ekarriz, haien intimitatea urratzeaz eta are segurtasun arazoa izateraino iritsi ahal izateaz gain.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, egokitu dezan enplegurako eta funtzio publikoan sartzeko eskaintza publikoaren prozesuak arautzen dituen araudia, erreserbako % 2ko kupora iristen diren genero-indarkeriaren biktimen nortasuna gordetzeko haien intimitatea eta segurtasuna indartze aldera, baina prozesura aurkezten diren pertsonen informaziorako eskubidea galarazi gabe.

Nafarroan, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete egin dezan mozio bat, zeinak premiatzen baitzuen Lizarran Familia Elkartzeko Gune bat abian jartzera eta Iruñean Familia Elkartzeko Gunea indartu eta deszentralizatza, Elizondon egoitza bat ireki ahal izateko.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete egin dezan mozio bat, zeinak premiatzen baitzuen Lizarran Familia Elkartzeko Gune bat abian jartzera eta Iruñean Familia Elkartzeko Gunea indartu eta deszentralizatza, Elizondon egoitza bat ireki ahal izateko (10-22/MOC-00062).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako Batzordean eztabaidatzeko:

Familia Elkartzeko Gunea gizarte-zerbitzu espezializatu eta doakoa da, Gizarte Zerbitzuen Zorroan eskubide gisa bermatua, elkargune bat eta esku-hartze profesionala eskaintzen dituen, hurrei beren gurasoekin eta familiartekoekin denbora batez elkartzea ahalbidetzeko, banantzeak, dibortzioak edo bestelako inguruabarrek eragindako gatazka-egoerak gertatzen direnean eta, bereziki, genero-indarkeriako egoerak gertatzen direnean, adingabeekiko bisitak zuhurtzarik eta ardura handienarekin egin behar baitira halako kasuetan.

Funtsezko zerbitzu bat da, hortaz, adingabeei bermatu nahi bazaie beren gurasoekin eta familiarekin leku neutral eta seguru batean elkartzeko eskubidea, eta aldi berean gurasoei bermatu nahi bazaie seme-alabekiko bisita-araubiderako eskubidea; hartara, adingabeak familiartekoekiko lotu-

ra afektiboak gordeko ditu, bere garapen psikiko, afektibo eta emozionalerako baitezpadakoak diren aldetik, eta askatasun eta babes giroan elkartu ahal izanen da haiekin.

Helburu horiek lortzeko eta egoera zehatzaren arabera, Familia Elkartzeko Gunea hainbat gauzatarako erabil daiteke: adingabeak uzteko eta batzeko, gatazkan dauden gurasoen arteko harremana ekiditeko asmoz; kanpoan bizi delako harreman horretan etxerik ez izateagatik, bere etxebizitzak adingabea hartzeko baldintzarik ez izateagatik... zaintza ez duen gurasoak bisitak egiteko elkartegunean bertan; edo bisitak hirugarrenek zaindu edo begiratu beharrekoak izateagatik zentroan egiteko.

2021eko maiatzean, Navarra Sumaren eskariz, mozio bat onetsi zen, Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jartzeko, gehienez ere urtebeteko epean, Iruñeko bi guneen, Tuterakoaren eta Tafallakoaren osagarri.

Epe hori iraganik, ez dakigu ezer zonalde horretako adingabe eta familientzat erabat beharrezkoa den gune horri buruz.

Gainera, mozio hori bete gabe iragandako denboran jakin dugu Iruñetik ipar-mendebaldera diren herri batzuetan zerbitzu horren premia gertatzen ari dela, non Iruñeko gune batera bidaltzen dituzten, haraino iristeko ordubetea dagoela, haur eta familientzat dakarren galerarekin, bidaia luzeak egin behar dituztelako senidearekin bisita eduki ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, berehala bete dezan 2021eko maiatzeko mozioa, Lizarran familia elkartzeko gune bat ireki dezan premiatzen zuena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Iruñeko familia elkartzeko gunea deszentraliza dezan, halako moduz non egoitza bat ireki ahalko den, asteko egunen batean Elizondon bisitak edukitzeko aukerarekin, ipar-mendebaldeko zonaldeari arreta emateko.

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

F saila:
GALDERAK

Galdera, eremu ahul gisa izendatutako eremuetan uraren kutsadurari aurrea hartzeko eta hura murrizteko 2018-2021 aldian jarduteko programari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, eremu ahul gisa izendatutako eremuetan uraren kutsadurari aurrea hartzeko eta hura murrizteko 2018-2021 aldian jarduteko programari buruzkoa (10-22/PES-00196).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduaren bidez berrikusi egin ziren nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak, eta 2018-2021 aldian jarduteko programa onetsi zen.

2018-2021 aldiko jarduketan epea amaituta, honako galdera hauek aurkeztu dira, idatziz erantzun dakien.

Zer balantze egin du Departamentuak Nafarroako Foru Komunitatean nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuetarako jarduketan programaz, urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduan eranskin gisa sartu zen horretaz?

Zein dira jarduketan programa horren balantzean Departamentuak positibotzat jotzen dituen alderdiak? Zein dira betetze mailaren aldetik negatibotzat jotzen diren alderdiak?

Atzeman edo ziurtatu al du urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduan kutsadura izan dezaketen eremu gisa jasotako horietan gaintu ote diren lurrean ongari nitrogenatuak ezartzeko mugak, eranskinaren 2-4 apartatuan aurreikusten direnak? Zehazki zein eremutan?

Eranskinaren 4.1 apartatuan aurreikusten diren ikerketa proiektuetatik zein garatu dira jarduketan programaren indarraldian zehar, nitrogeno-lurzorua-ura harremanen ezagupen zientifikoteknikoa hobetzera eta erabakia laguntzeko sistemak garatzera bideratuak, ahalbidetze aldera ongari nitrogenatuen erabilera egokia, lurzatiaren mailan, errentagarritasun ekonomikoaren irizpideak eta ingurumena babestekoak bateragarri egingez?

Jarduketan programaren indarraldian ingurumenaren zaintzarekin bateragarri diren ekoizpen-sistemak —ekoizpen ekologikoa zein integratua izan— sustatzeko zer plan edo jarduera garatu dira zonalde horietan?

Iruñean, 2022ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, pandemiari aurre egiteko Sodenaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, pandemiari aurre egiteko Sodenaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzkoa (10-22/PES-00197).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, pandemiari aurre egiteko Sodenaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Protokolo eta/edo prozedura definiturik egon al zen jasotako osasun materialaren kalitate irizpideak betetzen zirela egiaztatzeko?

2.- Hala bada, nolako zen protokolo/prozedura hori?

Iruñean, 2022ko ekainaren 21ean.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetarien kopuruari eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopuruari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetarien kopuruari eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari

diren pertsonen kopuruari buruzkoa (10-22/PES-00198).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, kazetarien kopuruari buruzko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetarien kopurua eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopurua 2011-2015 legegintzaldiaren bukaeran. Haien lanpostuak eta eginkizunak.

2.- Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan lan egiten duten kazetarien kopurua eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopurua 2015-2019 legegintzaldiaren bukaeran. Haien lanpostuak eta eginkizunak.

3.- Osasun Departamentuan eta bere erakunde autonomoetan gaur egun lan egiten duten kazetarien kopurua eta komunikazio eta/edo sare sozialetako eginkizunetan ari diren pertsonen kopurua. Haien lanpostuak eta eginkizunak.

Iruñean, 2022ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, metabertosa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea metabertosa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00199).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

Metabertosa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruz egindako galderari ekainaren 21eko agerraldian erantzunik eman ez zitzaionez, honako galdera hau egiten dut, idatziz erantzun dakion:

1.- Zer irizpideri jarraitu dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak Metabertosa garatu duen enpresa hautatzeko 11.50 € + BEZaren kostuarekin

2) Bilerarik egin al zen erabakiak hartzeko? Hala baldin bada, honako hau eskatzen da:

Bilera kopurua, bilera bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua, akten kopia eta esleipenaren gaineko dokumentazio oro.

Iruñean, 2022ko ekainaren 22an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Avento enpresari Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko enkargatu zaion azterlanari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Avento enpresari Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko enkargatu zaion azterlanari buruzkoa (10-22/PES-00200).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Zergatik enkargatu zaio Avento enpresari Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko azterlana eta zer baloratu da enpresa horrek egin dezan? Zein dira balorazioan sartzen ziren beste enpresak?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze mailari eta planaren 2023ko ekintzetarako epeei buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze mailari eta planaren 2023ko ekintzetarako epeei buruzkoa (10-22/PES-00201).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Zein da Nafarroako Kirol Azpiegituren Planean 2022rako aurreikusitako helburuen betetze maila eta zein dira planaren 2023ko ekintzak egiteko epeak (zer hilabete)?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitzei buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitzei buruz Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00202).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak Aragoiko Gobernuarekin ekimen, ekintza edo elkarrizketaren bat izateko asmorik al du Aragoiren hautagaitzan sartzeko Neguko Olinpiar Jokoetarako edo, hori ezean, Pirinioetako hautagaitza elkartu bat bilatzeko?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeke kalkularen zenbatespena enkargatu zaion enpresa espezializatuari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, atletismoko pista estali bat eraikitzeke kalkularen zenbatespena enkargatu zaion enpresa espezializatuari buruzkoa (10-22/PES-00203).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Zein enpresa espezializaturik kontsultatu dio Auentok atletismoko pista estalia eraikitzeke kalkularen zenbatespena egiteko? Nola egin dira kalkulak?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, ematen duten zerbitzuan ordutegi osoa ez duten liburutegi publikoen ordutegiak luzatzeari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, ematen duten zerbitzuan ordutegi osoa ez duten liburutegi publikoen ordutegiak luzatzeari buruzkoa (10-22/PES-00204).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Ematen duten zerbitzuan ordutegi osoa ez duten liburutegi publikoen ordutegiei dagokienez, esate baterako Olaztiko eta Etxarri Aranazko liburutegiak, lanaldiaren % 66rekin, eta beste zazpi liburutegi, % 92,5ekin, luzatzeko proposamen bat egon da.

Luzatzeko aldaketa horretan Liburutegi Zerbitzuaren, sindikatuen eta zenbait udalen aldetik proposatu da gutxienez ere parekatuta izan dezatela ordutegi-erregela, lanaldiaren % 99ra iritsita. Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak otsailaren 2022an onetsita badu ere Etxarri Aranaz eta Olaztirako proposamena, aldaketa hori ez da iristen. Eta lanaldi osoa ez duten beste zazpi liburutegi horiek direla-eta, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak Mahaian publikoki adierazi zuen ez zegoela arazorik hura onesteko.

Hori guztia dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zein da proposamen horiek gauzatzeko behar den zenbateko ekonomikoa eta zergatik ez da oraindik bete bederatzi liburutegi horien ordutegiak % 99raino luzatzeko proposamena?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean ordezkapenak betetzeko irizpideei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean ordezkapenak betetzeko irizpideei buruzkoa (10-22/PES-00205).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Jakin, badakigu liburutegi askotan ez dela berehala bermatzen langileen ordezkapena, aldi baterako ezintasuna, baimena edo gisako kasuak direnean, eta herri askotan ondorioa da zerbitzu publiko hori itxita egotea asteetan zehar.

Zein dira ordezkapenak betetzeko edo bete gabe uzteko irizpideak? Arrazoi ekonomikoak baldintzatzen al ditu ordezkapen horiek?

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado